



## ADHD Europe 2018ko URRIAK

### AGNH helduaroan: lantokian dituen ondorioak

Ikerketa askotan frogatu ahal izan denez, AGNH duten pertsonen burmuinen ezberdintasunek bizitza osoan zehar iraun ohi dute, sintomatologia totala edo partziala izan daitekeelarik. Honek, diagnostiko ezak edo tratamendu baten faltak lagunduta, pertsona hauentzat, euren familientzat eta orokorrean gizarte gutziarentzat zama ekonomiko nabarmen bat dakar.

Tamalez, AGNH duten heldu asko diagnostiko edo tratamendurik gabe bizi da gaur egun eta honek ondorioak dakartza. Bestalde, esku-hartze egoki bat izan ezker, AGNH duten langileak, ideiak sortzeko duten gaitasun, pertseberantzia eta energiari esker, oso baliagarriak gerta daitezke salmenta arloan, berrikuntzan, irakaskuntzan, trebakuntzan, arriskuak kudeatzen eta krisi egoerak gainditzea eskatzen duten egoeratan. Euren motibazioa handia den arloetan lortzen dituzte emaitzarik esanguratsuenak.

Giza eskubideak orokorrean eta ezintasun bat duten gizabanakoen eskubideak kontutan hartzea beharrezkoa da AGNH duten helduekin, euren potentzial guztia garatu dezaten. Enplegataileek AGNH-ri buruzko ezagutza eta laguntza-egitura egokiak izan behar dituzte, izatez kompetente eta adituak diren langileak euren lana era desegokian zergatik egiten duten antzemateko.

#### Gomendioak

Formatzaileek AGNH duten langileen giza eskubideak errespetatu behar dituzte euren potentzial guztia garatzeko aukera izan dezaten.

Honetarako enpresa bakoitzean AGNH-ri buruzko ezagutza duen pertsona bat gutxienez izatea beharrezkoa izango da. AGNH-ren ezaugarriak eta ondorioak ezagutzeak esku-hartze egoki bat ahalbidetuko du, absentismoari lotutako kostuetan eragin zuzena izango duena.

Formatzaileak AGNH duen langile batek dituen talentuak ezagutu eta lana haren indarguneetara egokituz, berak eman dezakeen onena jaso ahal izango du.

#26OTDAH #encajamosigualquetu #OctoberADHD



Lantokian egin beharreko egokitzapenek osasun zerbitzu okupazionalak lanpostu bakoitzean egin beharreko ebaluazioak kontutan hartu beharko dituzte. Ebaluazio hauetan oinarriturik arrazoizko doikuntza batzuk egin beharko dira, hala nola distrazioak ekiditeko egokitzapenak, ordutegi malguak, antolakuntza hobetzeko laguntzak eta ahal den neurrian produktibitatea eta lorpen profesionala hobetzera zuzenduriko neurriak.

Garrantzitsuena formatzailea AGNH duen langilearen indargunez ohartzea da, bere ahulguneak alde batera utzita. Honela, langileak duen potentzial guztiaz baliatu ahal izango du, bide batez enpresarentzat etekin ekonomiko zuzena lortuz.

**#26OTDAH #encajamosigualquetu #OctoberADHD**